# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-2906

103/1998 DEKRETUA, ekainaren 9koa, Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku-Batzordea sortzen duena.

Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea sortzen duen otsailaren 5eko 2/1988 Legeko 3. atalean, erakunde horrek garatu behar dituen egitekoen artean honako hau jartzen da, alegia, elkarte, fundazio eta beste entitate edo erakunde batzuekin harremanak eta partaidetza-moduak finkatzea, hau da, beren helburuak edo egitekoak direla medio, Emakundek dituen helburuak lortzeko languntzabide izan daitezkeenekin; bestalde, beste Autonomia Erkidego batzuetako, Estatuko eta nazioarteko komunitateetako beste instituzio eta erakunde batzuekin ere izan ahal izango ditu harremanak.

Horietaz aparte, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumezkoentzako ekintza positiboko II Planeko 3.1.2.5. jardunean, honako hau esaten da: «Euskal Autonomia Elkarteko emakumezkoentzako ekintza positiboaren aldeko politikak formulatzeko eta horien jarraipena egite-lanetan emakumezkoen elkarteek parte hartzeko beharrezkoak diren aukerak garatu behar direla.»

Ildo honetan, Aholku-Batzordeak emakumezkoen erkarteen eta Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundearen arteko komunikaziorako bide izatea nahi du, alegia, euskal gizartean emakumezkoek bete behar duten egitekoa aldatzeko proposamenak, kritikak eta aportazioak egiteko gune amankomun bat sortzeko posibilitateak ematea eta, horretarako, emakumezkoek partaidetza aktiboagoa izan dezatela bultzatu behar da.

1993. urtean gisa honetako batzorde bat jarri zen jardunean esperientzia piloto gisa, batzordearen operatibitatea ziurtatu ahal izateko eta lortzea nahi den helburuei zenbateraino egokitzen zaion jakin ahal izateko. Bestalde, esperientzia nahiko ona eta egokia izan denez, Aholku-Batzordea arautzea beharrezkotzat jo da beronen sendespena lortu ahal izateko.

Ondorioz, Lehendakaritzaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Xedea.

Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku-Batzordea sortzea da dekretu ho-

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-2906

DECRETO 103/1998, de 9 de junio, de creación de la Comisión Consultiva del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea.

La Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea establece, en su Art. 3, entre las funciones a desarrollar por éste, la de establecer relaciones y cauces de participación con Asociaciones, Fundaciones y otros Entes y Organismos que en razón de sus fines o funciones contribuyan a la consecución de los objetivos del Instituto, así como con Instituciones y Organismos análogos de otras Comunidades Autónomas, del Estado y de la Comunidad Internacional.

Además, el II Plan de Acción Positiva para las mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Gobierno Vasco el 29 de Diciembre de 1995, en su acción 3.1.2.5, prevé «Desarrollar los cauces necesarios para la participación de las asociaciones de mujeres en la formulación y seguimiento de las políticas de acción positiva para las mujeres de Euskadi».

En este sentido, La Comisión Consultiva pretende ser un cauce de comunicación entre las Asociaciones de Mujeres y el Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea de forma que posibilite crear un espacio común donde realizar propuestas, críticas y aportaciones que permitan y favorezcan la ineludible transformación del papel de las mujeres en la sociedad vasca, fomentando una participación más activa de éstas.

Una Comisión de estas características fue puesta en marcha en 1993 como experiencia piloto, a fin de comprobar la operatividad de la misma y su adecuación a los fines propuestos. Dado que dicha experiencia ha resultado satisfactoria y adecuada, es por lo que se ha valorado la necesidad de proceder a la regulación normativa de la Comisión Consultiva para su consolidación.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 9 de junio de 1998.

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

El objeto del presente Decreto es la constitución de la Comisión Consultiva del Instituto Vasco de la Mu-

nen helburua. Batzordea Emakunderi atxikita egongo da eta, bere egitekoei, kideei eta jardute-erregimenari dagokienetan, dekretu honetan xedatzen direnak bete beharko dira.

*2. atala.–* Egitekoak.

Honako egiteko hauek dagozkio aholku-batzorde horri:

a) Emakunderen helburuak betetzeko beharrezkotzat jo daitezen neurriak hartzeko proposamena Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundeari egitea.

b) Jardute plana, ebaluazio txostena eta botere publikoen ihardute memoria ezagutzea. Emakundek landuko ditu eta aholku-batzordeak horiei buruzko txostena emango du, baina ez da loteslea izango.

c) Emakunderen kudeaketa, jardute-moduari buruzko memoria eta erakunde horren aurrekontuen aurreproiektua ezagutzea. Horiei buruzko txostena emango du, baina ez da loteslea izango.

d) Giza-emakumeen arteko berdintasuna eta emakumezkoek, politika-, kultura-, ekonomi- eta gizarte-bizitzan izan behar duten partaidetza indartzeko eta sustatzeko komenigarritzat jotako neurriak Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundeari proposatzea.

e) Emakundek eman diezaiokeen beste edozein egiteko.

*3. atala.–* Partaidetza.

1.– Honako hauek parte hartu ahal izango dute Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku-Batzordean: Euskal Autonomia Erkidegokoak izan eta eskabidea aurkeztu dezaten emakumezkoen elkarte eta fundazioek. Emakumezkoen defentsa eta sustapena egitea izan behar dute helburu bakarra eta Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundearen onarpena izan.

2.– Horretarako sortzen diren lau arloetako bati atxiki beharko zaizkio elkarteak eta fundazioak, hala nahi baldin badute:

a) Arlo sozio-kulturala.
b) Hezkuntza arloa.
c) Asistentzia-sanitate arloa.
d) Feminismoari buruzko azterketa arloa.

*4. atala.–* Kideak eta ihardute-modua.

1.– Aholku-Batzordearen ihardute-modua, pleno eta azpibatzorde sektorialen bidezkoa izango da.

2.– Honako hauek osatuko dute plenoa:

a) Lehendakaria: Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer erakundeko zuzendaria.

b) Lehendakariordea: Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer erakundeko idazkari orokorra. Honek, hala behar bada, haren ordezkotza egin ahal izango du.

jer / Emakumearen Euskal Erakundea, adscrita a dicho Instituto y cuyas funciones, composición y régimen de funcionamiento se ajustarán a lo dispuesto en el presente Decreto.

*Artículo 2.–* Funciones.

Corresponderán a la misma las siguientes funciones:

a) Proponer a la Dirección de Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea las medidas que se estimen necesarias para el cumplimiento de los objetivos de éste.

b) Conocer el Plan de Actuación, el Informe de Evaluación y la Memoria sobre la actuación de los Poderes Públicos, elaboradas anualmente por el Instituto, emitiendo informe, no vinculante, al efecto.

c) Conocer la Memoria anual sobre gestión y funcionamiento del Instituto, así como el Anteproyecto de Presupuesto del mismo, emitiendo informe, no vinculante, al efecto.

d) Proponer a la Dirección del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea cuantas medidas se consideren convenientes en materia de promoción y fomento de la igualdad de ambos sexos y de la participación de las mujeres en la vida política, cultural, económica y social.

e) Cualesquiera otras que les fueren atribuidas por el Instituto.

*Artículo 3.–* Participación.

1.– Podrán participar en la Comisión Consultiva del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, las Asociaciones de mujeres y Fundaciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi cuyo único objeto estatutario contemple la defensa y promoción de las mujeres, que así lo soliciten y el Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea.

2.– Las Asociaciones y Fundaciones, atendiendo a sus fines se adscribirán, de modo voluntario, a una de las cuatro áreas de actuación que se crean al efecto:

a) Área socio-cultural.
b) Área de formación.
c) Área asistencial-sanitaria.
d) Área de reflexión feminista.

*Artículo 4.–* Composición y funcionamiento.

1.– La Comisión Consultiva funcionará en Pleno y en Subcomisiones Sectoriales.

2.– El Pleno lo constituyen:

a) Presidenta: La Directora de Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer.

b) Vicepresidenta: La Secretaria General de Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer, quien, en su caso, sustituirá a la Presidenta.

c) Bokalak: 12 bokal, Aholku-Batzordean parte hartzen duten elkarte eta fundazioen ordezkotza eginez, hau da, 3.2 atalean aipatzen diren ihardute-arlo bakoitzeko bat lurralde historiko bakoitzean. Azpibatzorde sektorial bakoitzeko lehendakariak izango dira kide.

– Ikerketa, Planifikazio eta Agirien arduraduna eta Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundeko Hezkuntza-arduraduna.

d) Idazkaria: Emakundeko Informazio eta Elkarteen arduraduna, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango duela.

3.– Aholku-Batzordeko kide diren elkarte eta fundazioek osatuko dituzten azpibatzorde sektorialak 12 izango dira, ihardute-arlo bakoitzeko bat lurralde historiko bakoitzean. Lehendakari bat eta idazkari bat aukeratu beharko dituzte bertako kideen artetik. Lehendakaria, azpibatzordeak plenoan duen ordezkari-bokala izango da.

*5. atala.–* Batzarren erregimena.

1.– Plenoa, urte bakoitzeko, hiru aldiz bilduko da gutxienez, alegia, batzar bat lauhilabetetik lauhilabatera. Lehendakariak egingo du deialdia eta beronetan finkatu dira leku eta ordua. Eguneko gaizerrendan aipatzen diren gaiak aztertzea izango da, noski, helburua.

2.– Azpibatzordeak hiru hilabetetik hiru hilabatera bilduko dira gutxienez. Plenoa egin baino lehen beti, plenorako gaizerrendan jasotzen diren arazoak aztertu ahal izateko.

3.– Horiek horrela izan arren, bai batzordearen plenoa eta bai azpibatzorde sektorialak ere bildu ahal izango dira lehendakariak ontzat eman dezanean eta ezohiko izakeraz, nahiz beren iniziatibaz, nahiz beroiek osatzen dituzten heren baten proposamenez.

*6. atala.–* Bokal-karguen iraupena eta aukeraketa.

1.– Bi urtekoa izango da bokalen karguen iraupena. Erdiak berriztu egin beharko dira urtean-urtean, alegia, azpibatzordeek egin dezaten urteko lehenengo batzarrean.

2.– Bokalen berriztapen-hautaketa, urtean urtekoa noski, Batzordean parte hartzen duten elkarteek, hain zuzen ere, azpibatzorde sektorialek egingo dute bokalen berriztapen-hautaketa, urtean urtekoa noski; horretarako, arlo eta lurralde historikoak hartu beharko dira kontuan.

3.– Izendapena eskuratu eta bokaltzarako izendatua izan den ordezkariren batek ukoa aurkeztea gertatuz gero, ordezkari izateko izendatua izan dena karguan geldituko da denbora bete arte, hau da, ordezkatua izan denari legokiokeen epealdia amaitu arte hain zuzen.

*7. atala.–* Erabakiak hartzea.

Erabakiak, bai batzordearenak eta bai azpibatzordeenak ere, gehiengo soilez hartuko dira. Batzarrean dau-

c) Vocales: 12 vocales en representación de las Asociaciones y Fundaciones que participan en la Comisión Consultiva, una por cada una de las áreas de actuación a las que se refiere el art. 3.2 en cada Territorio Histórico, y que serán las Presidentas de cada una de las Subcomisiones Sectoriales.

– La responsable de Estudios, Planificación y Documentación y la responsable de Formación del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea.

d) Secretaria: La responsable de Información y Asociaciones de Emakunde, con voz y voto.

3.– Las Subcomisiones Sectoriales que estarán integradas por las Asociaciones y Fundaciones que forman parte de la Comisión Consultiva, serán 12, una por cada área de actuación en cada Territorio Histórico, y elegirán entre sus integrantes una Presidenta y una Secretaria. La Presidenta será la vocal representante de la Subcomisión en el Pleno.

*Artículo 5.–* Régimen de Sesiones.

1.– El Pleno se reunirá, cuando menos, tres veces al año, una por cuatrimestre, previa convocatoria de la Presidenta, en el lugar y hora que se señale en la misma, al objeto de tratar los asuntos incluidos en el Orden del día.

2.– Las Subcomisiones se reunirán, cuando menos, una vez al trimestre y, en cualquier caso, previamente a la celebración del Pleno a fin de preparar las cuestiones incluidas en el Orden del Día del mismo.

3.– No obstante lo anterior, tanto el Pleno de la Comisión como las Subcomisiones Sectoriales podrán reunirse, con carácter extraordinario, cuando así lo estime oportuno la Presidenta, bien por propia iniciativa, bien a propuesta de un tercio de sus integrantes.

*Artículo 6.–* Duración y renovación de vocales.

1.– Las vocales permanecerán en su cargo por un período de dos años, renovándose cada año la mitad de las mismas en la primera reunión anual de las Subcomisiones.

2.– Para la renovación anual de las vocalías se realizará la elección por las Asociaciones participantes en la Comisión en función de las Áreas y Territorios Históricos, es decir por Subcomisiones Sectoriales.

3.– En el supuesto de renuncia de alguna representante a la Vocalía para la que hubiera sido designada, quien fuera designada como sustituta, se mantendrá en el cargo por el tiempo que reste hasta la expiración del plazo que hubiera correspondido a la sustituida.

*Artículo 7.–* Adopción de acuerdos.

Los acuerdos, tanto de la Comisión como de las Subcomisiones, se adoptarán por mayoría simple. En caso

denen arteko boto-berdinketa ematea gertatzen bada, lehendakariaren edo, hau egon ezean, lehendakariordearen edo idazkariaren kalitatezko botoz emango zaio ebazpena berdinketari.

*8. atala.–* Harahonakoak ordaintzea.

1.– Plenoetan eta azpibatzorde sektorialetan parte hartu behar izanaren eraginez egin beharreko harahonakoen gastuak ordaindu dakienaren eskubidea dute Aholku-Batzordeko bokalek. Gai horri dagokionetan, aplikagarriak izango dira otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, osagarriak eta garapenerako diren gainontzeko xedapenetan ezartzen direnak.

2.– Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer erakundeko zuzendariak onartuko ditu ordaindu beharreko diruak eta bai zenbatekoak zehazki finkatu ere.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Dekretu hau indarrean jarri eta hamar eguneko epearen barruan azpibatzorde sektorial bakoitzeko lehendakariak izendatu beharko dira. Lehendakari horiek izango dira bokal ordezkariak Aholku-Batzordeko plenoan.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Xedapenen ordezkapen-erregimena.

Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatzen direnak aplikatuko dira dekretu honetan finkatzen ez direnetan.

*Bigarrena.–* Indarrean jartzea.

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko ekainaren 9an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

de empate entre las asistentes, decidirá el voto de calidad de la Presidenta o en su ausencia de la Vicepresidenta o Secretaria.

*Artículo 8.–* Indemnizaciones por desplazamientos.

1.– Las vocales de la Comisión Consultiva tendrán derecho a ser indemnizadas por los gastos de desplazamiento realizados como consecuencia de su participación, tanto en el Pleno como en las Subcomisiones Sectoriales, siendo, a tal efecto, de aplicación las cuantías establecidas en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, y demás disposiciones complementarias y de desarrollo.

2.– El reconocimiento y la determinación concreta de las indemnizaciones a percibir se realizará por Resolución de la Directora de Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En el plazo de diez días desde la entrada en vigor del presente Decreto, deberán designarse Presidentas en cada una de las Subcomisiones Sectoriales que serán las vocales representantes en el Pleno de la Comisión Consultiva.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Régimen supletorio.

En lo no previsto en el presente Decreto será de aplicación lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Segunda.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de junio de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.